

IV. PARTE-HARTZE SAIOA (Iritziak Erkatzeko Saioa + Herritarren Foroa), BILBO METROPOLITARRAREN LPParen DIAGNOSTIKOARI buruzkoa

Data: 2017/06/06

Lekua: Getxoko *Getxolan* eraikina

Iraupena: 10:00-13:00 eta 18:00-20:00

Bertaratutakoen kopurua: Iritziak Partekatzeko Saioa (11) + Herritarren Foroa (18)

BFAko ordezkariak

Izena	Kargua
Idoia Garay	Lurralde Antolamenduko Ataleko burua
Elisa Cano	Lurralde Antolamenduko Atala
Jose Manuel Alonso	Lurralde Antolamenduko Atala
Domingo Ruiz Elua	Lurralde Antolamenduko Atala

Teknikariak

Izena	Enpresa
Aitor Sarria	Estudio-K
Cristina López	Basoinsa
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Aida López Urbaneja	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Mireia Carrasco Ferri	Paisaje Transversal

Saioari hasiera ematea

Iñaki Romero parte-hartze taldeko kideak eskerrak eman dizkie bertaratutako pertsoneri eta, bereziki, tokiko teknikariei, jardunaldia antolatzen laguntzeagatik eta jardunaldia egiteko behar zituzten guneak prestatzeagatik.

Hala, saioaren diagnosiko-fasea oso garrantzitsua dela azaldu du laburki, eta bi helburu nagusi dituela: batetik, lantalde teknikoak **diagnostikoaren emaitzak aurkeztea**; bestetik, diagnostikoaren **emaitza horiei buruzko iritziak erkatzea**, bai teknikariekin (goizean *iritziak erkatzeko saio* bat eginez) bai herritarrekin (arratsaldean *herritarren foro* bat eginez).

Diagnostikoaren aurkezpena

Hurrengo 45 minutuetan, gutxi gorabehera, EstudioK-eko **Aitor Sarria** jaunak eta Basoinsako **Cristina López** andreak hitza hartu eta diagnostikoaren emaitza garrantzitsuenak azaldu dituzte.

Lan-dinamikak

Horren ondoren, Paisaje Transversal-eko **Iñaki Romero** jaunak lan-dinamika azaldu du: bertaratuak bi mahaitan banatu ziren eta mahai bakoitzak honako lau gai hauetako bitan lan egin behar zuen:

- A. **Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna**
- B. **Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak**
- C. **Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea**
- D. **Mugikortasuna eta logistika, Baliabideen kudeaketa jasangarria**

Mahai guztiek lau fase igarotzen dituzte:

1. Proposatutako orientazioak balioztatzea, haiek argitzea eta beste batzuk proposatzea.
2. Garrantziaren arabera lehentasuna ematea.
3. Premiaren arabera lehentasuna ematea.
4. Jarduera eta orientazio hauek lortzeko proieku zehatzak proposatzea.

Talde bakoitzeko kideek mahaiz aldatu beharko dute bigarren fasean (txandakatu egin behar dute, bi mahaietan parte hartzeko).

Emaitzak

IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 1. MAHAIA:

- **Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak**
- **Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna**

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENEKO** orientazioak, handienekotik txikienera ordenatuta:

1. **Proposamen berria:** Hiri-perimetroaren definizioa LPPren udalerriaz gaindiko antolamendutik abiatuta egiteak gehiegi mugatzen ditu udal-eragileak.
 - Proposatuta da LPPk esku hartzeko irizpideei lehentasun handiagoa eman diezaiela zonifikazioari eta lurzoruen mugari buruzko zehaztapenei baino.
 - Hiri-garapena eta ingurumena bateraezinak direla seinatu dute.
 - Nabarmendu dute zaila dela lurzoria sailkapenez aldatzea perimetro-eremuen bat dagoenean.
2. *“Edukiera handiko garraio publikoko geltokien inguruko lurzoruetan jarduera sor dadin faboratzea”*
 - Ibarbengoa-Getxo metro-geltoki berria aipatu dute, enpresa-sarearekin jarraitutasuna duten erabilerekin oinarritutako jarduera-eremu berri bat sustatzearen adibide kritiko gisa.
3. *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*
4. *“Oraindik garatu ez diren dentsitate baxuko zenbait gune birdentsifikatzea eta haien kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
 - Getxok hein handiagoan aldatu behar ditu lurzoria sailkapenez.
5. *“Parke teknologiko berriak hirien aldameneko eremuetan kokatuta egotea (derrigorrean)”*
6. **Proposamen berria:** LPPk malguagoa beharko luke.
 - Fasea 16 urtera?
7. *“Bilboko itsasadarraren inguruan antolamendu globala eta koordinatua planteatzea, zeharkatzen dituen udalerriz guztiak bilduko dituen”*
 - LPPtik bateragarritasun-planak iradokitzea. Leku estrategikoak seinatzea.
 - Udal-mugei dagokienez, udalerrien artean komunikazio-falta dagoela nabarmendu da.
 - Berango-Getxoko bateragarritasun-planari lehentasuna ematea proposatu da.
8. *“Udalerririk ekipamenduekin lotuko litzuzkeen sare bat sortzea, Done Jakue Bidea, Bilboko Inguruko Berdegunea, itsasoko bidea eta Bilboko Burdin Hesia oinarri gisa hartuta”*
 - Udal-kudeaketakoa izan beharko luke batez ere.
 - LPPko gidalerro edo akordio gisa bildu beharko lirateke.
 - Elkarriketa-metodo gisa bideratu beharko litzateke, dokumentu gisa bideratu beharrean.

- 9. *“Hiri-merkataritza bultzatzea, merkataritza-ekipamendu handien ordez”*
 - Merkataritza-azpiegituren mozkinen banaketa beste modu batean arautzea proposatu dute; zehazki, udalerrien artean bana daitezela proposatu da, haien kokapena kontuan hartu gabe; horrela, ez litzateke sustatuko udalerrien arteko lehiakortasuna.
 - Saltzaileen elkarte bat sortzea, bizilagunei bideratutako bestelako gizarte-ekimenekin batera, auzo-sareak bultzatzeko.
 - Merkataritza-ekipamendua eta hutsik dagoen lurzoru industrialak konbinatzea, hobeki aprobetxatze aldera.
 - Merkataritza-ekipamenduak hazkunde-bektoreetan ardatzea.
 - LPPn hiri jasangarri eta trinkoaren eredia biltzea.

Bigarren mailako garrantziarekin, **HAIN GARRANTZITSUAK EZ DIREN PREMIA TXIKIAGOKO** proposamen hauek egin ziren:

- 10. *“Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa”*
- 11. *“Biztanleria zahartzen ari denez, ekipamendu sozialen eskaria handiagotzen ari da; arazo horri erantzutea”*
 - Getxon eguneko udal-zentro gehiago behar direla adierazi dute parte-hartzaileek.
 - Tutoretzapeko zentroak.
- 12. *“Enplegu-eskaintzaren eta biztanleriaren arteko desoreka murriztea, premia handieneko udalerrietan jarduera sustatuta”*
 - Hirugarren sektoreko turismo-jarduerak proposatu dira.
- 13. *“Gure lurraldeko espazioa mugatua dela kontuan izanik, lurzoru berriak industria-jardueretarako okupa daitezela saihestea, hutsik dauden lurzoruak birstortu arte”*
 - Jarduera ekonomikoak kutsatutako lurzoruekin hibridatzea, diru-laguntzen plusarekin batera.
- 14. *“Benetan eskuragarri dauden lurzoru industrialen inbentario zehatz bat egitea, horrelako tokiak optimizatze aldera”*
 - Proposatu da LPPk zedarritu ditzala ingurumen-eremuak. Hazkunde-areak zedarrizteko irizpideek udal-eskumenekoak izan beharko lukete.
 - Epe motzeko eta epe luzeko prozesuen artean denbora-bateraezintasuna dago.
- 15. *“Lurzoru industrialak zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziazio-tresnez hornitzea”*
 - Eraldaketen definizioa eguneratzea proposatu da. Egingarriagoak eta ez hain orokorrak izan daitezela proposatu dute.
 - Lurzoruen kudeaketa eraginkorragoa izan dadin, kategorien azpibanaketa bat proposatu da eraldaketa-egoeretan: potentzialki deskontaminatutako lurzoruaren kategoria.



16. *“Hiri-garapen berrienak birdentsifikatzea eta tinkatzea, haien konexioa garraio publiko bidez eta haien zentralitatea faboratze aldera”*
- Itsasertzeraino iristeko aukera baztertu egin da.
 - Azpiegitura estrategikoa sortzea.
 - Birdentsifikazio-prozesuan etxebizitza okerrenak ebaluatzea proposatu da, eraitsi ote daitezkeen erabakitzeko.

IRITZIAK ERKATZEKO SAIOAREN 2. MAHAIA:**- Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea**

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENKO** orientazioak, lehenetsun handienekotik txikienera:

1. *“Urbanizagarriak diren baina oraindik urbanizatu ez diren nekazaritza-balio handiko lurzoruei kategoria hori kentzea”*
 - Sailkapenez aldatzeari lehenetsuna ematea, lurzoruen nekazaritza-balioa alde batera utzita.
2. *“Ibai-bide nagusiak ijezketagunez hornitzea, bi erabilera izan ditzaten: batetik, aisialdia; bestetik, hiribideen kontrola”*
 - Igarobide ekologikoak udal-ibilguen bitartez lotzea, lurraldetik igarotzea askoz ere naturalagoa izatea eragingo bailuke horrek.
3. *“Landaguneak zedarritzea eta antolatzea eta baserriak banatzeko irizpideak ezartzea, bertan behera gera ez daitezen”*
 - Zenbait udalerritan etxebizitzak gaitzeko emandako udal-ordenantzari buruz hitz egin dute: Baserrien inbentarioa (Arrietan, Marurin eta Loion egindako ekimena) -> Baserri bakoitzeko fitxa bat egiten da, eta baserriaren neurrien arabera, udal-ordenantza baten bitartez baserri hori familia edo bizitza bakarrekoa izatetik bi familia edo bizitzakoa izatera alda daiteke, betiere HAPOk baimentzen badu, lotutako partzela alde batera utzita.
4. *“Igarobide ekologikoen eskualde-sare bat sortzea, eremu mugakideekin ez ezik, tokiko berdeguneen sarearekin ere jarraitutasuna izango duena”*
 - Babes-figuren konektibitatea sustatzea. Berdeguneak erabiltzea, sistema orokor gisa, eta haien arteko konexioa bilatzea.
 - Orban berdea ez ezik, erabilera berdea ere sustatzea (aisia-erabilera).
 - Udal-berdeguneen xehetasunei buruzko azterketa, ondo jakiteko zer lotu behar den.
 - Leioa: Lamiakoko arazketagunearen ingurumen-lehengoratzeko gauzatzea proposatu dute, eta kaia eraistek gune heze bat sortzeko balio dezala.
5. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea, basoen kudeaketa egokia eragingo lukeen katalogo bat, hain zuzen: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
 - Mendi babesleen figura: Leioan baso-erabilera proposatzea, irristatze-arriskua duten lurrak babesteko modu gisa.
6. *“Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrialababesteko eta antolatzea neurriak abiaraztea”*
 - Paisaiaren ekintza-planetak proposamenak txertatzea (Getxo).
 - Itsasertzeko parkeari buruz: uste dute LPPk udalerriaz gaindiko gune libreen sare hori bilatzeko proposamen estrategikoa bildu behar duela.
 - Tokiko sistemen orde, eskualde-sistemak hartzea. Udalerriaz gaindiko helburuak txertatzen saiatzea.
 - Paisaia-politikak garatzeko diru-sustapenak egin behar direla adierazi dute. Udalerritik horrelako estrategiak bultzatzeko giza baliabideak falta direla azaldu dute.
 - *Basquetour* agentziak “hiria edertzeari” eta “nortasuna babesteari” buruz egindako lana aipatu dute, adibide gisa. Turismo-balioa izateaz gain, herritarrentzat onuragarria dela planteatzen zen

Ian horretan, azpiegiturak, mugikortasuna eta ekipamenduak hobetzeko eta ondareari balioa emateko balio baitu. Izan ere, plan horretan proposatutako neurrietako batzuk gauzatu egin ziren, errazak baitziren.

Hona hemen **GARRANTZI HANDIENKO ETA PREMIA TXIKIENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

7. *“Lurraldean atzemandako gune degradatuetan (zaborteziak, hondakindegia, industria-aurriak, harrobia eta abar) ingurumen-hobekuntzarako jardunak sustatzea”*
 - Azpieren kontrolatu gabe dauden zenbait zabortezi buruzko informazioa aurkeztu dute eta zabortezi horietan kontrol orokorra ezarri behar dela adierazi dute (kasu baterako, Leioako tiro-eremuan kontrolatu gabeko zabortezi bat dago).
 - Hondakinak kudeatzea gero eta zailagoa dela aipatu dute, ezin baitituzte Garbigunera eraman.
 - Guneo udalen artean zabortezi-poltsa bat sortzeko proposamena egin da, diru-laguntza komunak bilatze aldera.

8. *“Diru-sarrerak lortzeko beste iturri batzuk sustatzea, nekazaritza-produktuekin eta nekazaritza-turismoarekin lotutako iturriak, hain zuzen”*
 - Dauden baserriekin lotutako nekazaritza-turismoa.
 - Nekazaritza-turismoa "gizarte-interesekotzat" aitortzea; hala, hirugarren sektoreko jarduerak baimenduko lirateke lurzoru ez-urbanizagarrietan.

- **Mugikortasuna eta logistika, eta Baliabideen kudeaketa jasangarria**

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

1. *“Txartel bakar bat sortzea garraio publikorako”*
 - Tarifak eta ordutegiak bateratzea. Hiri-periferiarekin tarifak hobetzeko formulak eta apustuak bilatzea.
2. *“Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”*
 - Tokiko hainbat proposamen bildu dira:
 - Getxo: Andra Marin leku gutxi dago 2,50 m-ko zabalerara iristeko; horregatik, galtzara-zati estu bat hartzea, babestea eta zedarritzea proposatu da, txirrindularientzat seguruagoa izan dadin.
 - Urduliz: toki jakin batean aparkalekuak kendu dituzte, 2,20 m-ko tartera iristeko, tarte fisiko baten bitartez zedarritu dute gune hori (txirrindulariei segurtasun handiagoa emateko) eta zenbait tokitan 30eko mugak markatu dituzte, bizikletak bertatik igaro daitezten.
 - Arazoa ez da behar beste bizikleta-errei ez daudela, baizik eta udalerriak ez daudela bizikleta erreien bitartez lotuta. Itsasadarretik doan bidegorria alde batera utzita, udalerrien artean lotura hori falta dela atzeman dute.
 - Gune problematikoak: Sopelmarreko jaitsiera.
 - Bizikletetarako aparkalekuak ipintzea, kalean ez ezik, eraikinetan ere bai.
 - Hiri-bizikleten erabilera sustatzeko aukera. Udalerriaz gaindiko eredu bateratua.
3. *“Tren bidez aireportua eta Bilbo hiriko gunea lotzea, bidaiariak garraiatzeko”*
 - Eremu honetan ondo konektatuta daude osasun-zentroak eta ikastetxeak. Eta hori plus bat da.
 - Tranbia Leioatik igarotzea proposatu dute, konexioa aireporturaino luzatzeko. Uste dute eskuinaldea ez dagoela ondo konektatuta eta hobetu egin beharko litzatekeela.
 - Garrantzitsua da toki garrantzitsuenak eta intermodalak behar adina sendoak izatea.
 - Azpial bakoitzetik puntu horietaraino automatikoki iristeko, Bilbotik zertan igaro gabe.
4. *“Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektibo garbiena erabilera bultzatuz”*
 - Iruditzen zaie ez zaiola hainbesterainoko garrantzia eman behar errentagarritasun ekonomikoari: irisgarritasunari begira, gizarte-errentagarritasuna ere kontuan hartu behar da.
 - Garraioen bikoiztasuna ezabatzea. Lehentasuna ematea: denbora gutxiago behar izatea *versus* mugikortasun garbia.
 - Egingarria al da metroak eta autobusak bide bera izatea? Nahikoa lehia al dago? Lehenetsi egin beharko al lirateke garraio “garbiak” (metroa/tranbia *versus* autobusa)?
 - Garraio publikoaren erabilera sustatzea, geltoki nagusietatik gertu aparkalekuak gaituta. Informazio gehiago erabiltzaileei.

Hona hemen **GARRANTZI HANDIENENKO ETA PREMIA TXIKIENENKO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

5. *“Garraio kolektiboari dagokionez, plataforma eskusiboko (autobusa edo tranbia) sare zabalagoa garatzea, ordutegia fidagarriagoa izan dadin”*
 - Leioan tranbia igaro behar zuen tokian plataformaren erabilera proposatzea, autobusa bertatik igaro dadin.

- Ezkerraldean eta eskuinaldean tranbiak berrartzea eta bide horiek bestelako ibilgailuetarako gaitzea.
 - Proposamena Leioan. Artatzako errepidea: norabide bakarrekoa? Iparraldeko bideak? Norabide bakarreko biribilgunea?
6. *“Tren bidez Bilboko Portua hiriguneeekin konektatzea, interferentziarik gabe, salgaiak garraiatzeko”*
- Uste dute zeharka eragiten diela, salgai-garraioaren zati handiena Txorierritik igarotzen baita, ez ordaintzeko. Ondorioz, baina istripuren bat dagoenean, Txorierra eta Artatzako errepidea kolapsatu egiten dira.
 - Salgai horiek hiri-periferian mugi daitezela proposatu dute.

HERRITARREN FOROAREN 1. MAHAIA:

- Alderdi sozialak eta ekonomikoak, Ekipamenduak eta Zeharkako gaiak
- Hiri-habitata: Etxebizitza, Jarduera ekonomikoak, eta Antolamenduen bateragarritasuna

Hauei eman zitzaizen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENA:**

- 1. *“Hiri-merkataritza bultzatzea, merkataritza-ekipamendu handien ordeztzea”*
 - Udalerrietara ekipamendu handiak iristeak dituen inpaktuak alderatzea ahalbidetzen duten datuak gardentasunez baliatzea garrantzitsua dela azpimarratu dute. Adibidez, sortzen dituzten enpleguei eta suntsitzen dituztenei buruzko benetako datuak ikusaraztea.
 - Ekipamendua dagoen tokietan haiek eragindako ingurune-inpaktua erregulatzea garrantzitsua dela ere azpimarratu dute.
 - Askotariko hiri-merkataritza sustatzea proposatu dute, ekipamendu berrien lehia-presioa geldiarazteko.
 - Lurraldean ekipamendu handiak txertatzeko prozesuak kudeatzeko estrategia komun bat sortzea ere planteatu dute.
- 2. *“Sortuko diren etxe berriak jada beharrezko azpiegiturak dituzten guneetan kokatuta egongo direla bermatzea”*
- 3. *“Oraindik garatu ez diren dentsitate baxuko zenbait gune birdentsifikatzea eta haien kategoria aldatzea (urbanizagarri izatetik landagune izatera aldatzea)”*
 - Biztanle bakoitzeko berdeguneen koefiziente edo estandarrari lotzea birdentsifikatu aurretik.
- 4. *“Edukiera handiko garraio publikoko geltokien inguruko lurzoruetan jarduera sor dadin faboratzea”*
 - LPPk garraio publikoa eskualde artean kudea dezala proposatu dute parte-hartzaileek.
- 5. *“Etxebizitza-proposamenak hiru konponbide hauetarantz bideratzea: etxebizitza hutsak merkatuan ipintzea; birmoldaketa; eta birdentsifikazioa”*
 - Udalerrietan etxebizitza hutsen kopurua eraginkortasunez zehaztea garrantzitsua dela azpimarratu da.
- 6. *“Udallerriak ekipamenduekin lotuko lituzkeen sare bat sortzea, Done Jakue Bidea, Bilboko Inguruko Berdegunea, itsasoko bidea eta Bilboko Burdin Hesia oinarri gisa hartuta”*
 - Erabiltzen ez diren bidexkak berraktibatzea.
 - LPPn “kostaldeko parke” deritzonaren esanahia eta mugarriztatzea berriz zehaztea
 - Munarrikolandako ibilbide megalitikoari balioa ematea.

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA TXIKIENKO** orientazioak, lehenetasun handienekotik txikienekora:

- 7. *“Bilboko itsasadarraren inguruan antolamendu globala eta koordinatua planteatzea, zeharkatzen dituen udalerrri guztiak bilduko dituena”*
 - Jarraitutasun-falta nabarmena dago. Udallerrien arteko mugak gune estrategiko gisa indartzea proposatu da.

- 8. *“Biztanleria zahartzen ari denez, ekipamendu sozialen eskaria handiagotzen ari da; arazo horri erantzutea”*
 - Gizarte-ekipamenduak lotuko dituen hiriarteko autobusen sare bat sortzeko eskatu dute.
 - Gizarte-ekipamenduak falta direla adierazi dute parte-hartzaileek.

- 9. Proposamen berria: Udalerrien arteko koordinazioa eta solidaritatea eskualdeetan.
 - Udalerrien artean irizpideak bateragarri egin behar direla nabarmendu da.

- 10. *“Gure lurraldeko espazioa mugatua dela kontuan izanik, lurzoru berriak industria-jardueretarako okupa daitezten saihestea, hutsik dauden lurzoruak birsortu arte”*

- 11. *“Lurzoru industrialak zaharkitu eta hutsen biziberritzeari heltzea, eta horretarako kudeaketa- eta finantziazio-tresnez hornitzea”*

- 12. *“Enplegu-eskaintzaren eta biztanleriaren arteko desoreka murriztea, premia handieneko udalerrietan jarduera sustatuta”*
 - Zerbitzuen sektoreko jarduerari garrantzi handiegia ematen zaiola eta, horregatik, beste sektoreetan enplegurik sortzen ez dela mahaigaineratu dute.
 - Artisautza-tailerrak bultzatzea proposatu da, bestelako erabilerekin bateragarriagoak eginda babesteaz gain.

- 13. *“Erabilera bat baino gehiago nahasten dituen lurralde-eredu trinkoa sustatzen jarraitzea, bizitegi-erabilera eta jarduera bateragarriak ez ezik, hainbat jarduera ekonomiko elkarrekin ere nahasten dituen lurralde-eremua, hain zuzen”*
 - Lo-hiriaren eredia saihestea.

HERRITARREN FOROAREN 2. MAHAIA:

- Ingurune fisikoa eta Azpiegitura berdea, Landa-habitata, eta Paisaia eta Ondarea

Hona hemen **GARRANTZI ETA PREMIA HANDIENEKO** orientazioak, lehenetsun handienekotik txikienera:

- 1. *“Igarobide ekologikoen eskualde-sare bat sortzea, eremu mugakideekin ez ezik, tokiko berdeguneen sarearekin ere jarraitutasuna izango duena”*
 - Jada existitzen diren ibilbideekin kateatzea.
 - Biztanle-dentsitate handieneko inguruekin lotzea, eguneroko erabileran erretiro-eremuak bultzatzeko xedez.
 - Mugikortasuna errespetatzen eta kontuan hartzen duten neurriak sustatzea.
- 2. *“Mendi babesleen katalogo bat sortzea, basoen kudeaketa egokia eragingo lukeen katalogo bat, hain zuzen: selektiboagoa eta ez hain intentsiboa”*
 - LPPn iradokitzea “hobekuntzagunea” dela hau, gune horretan espezie egokiak erabiltzen dituztenek diru-laguntza jaso dezaten.
 - Espezie autoktonoak landatzeko gomendioak eman behar dira.
 - Espezie egokiak erabiltzen ez dituztenentzat “bidesari” bat sortzea.
 - Lehen ustiategi batean lortzen ziren mozkinak orekatzeko diru-laguntzak.
- 3. *“Tren bidez aireportua eta Bilbo hiriko gunea lotzea, bidaiariak garraiatzeko”*
- 4. *“Paisaia –kostaldekoa, nekazaritza/basozaintzakoa, meatzaritzakoa eta hirikoa/industrialababesteko eta antolatzekeo neurriak abiaraztea”*
 - Itsasertzari balioa ematea garrantzitsua dela nabarmendu dute.
 - Jada existitzen denarekin oso jarrera kritikoa izan dute: kostaldean bertan eraikitako urbanizazioak (kasu baterako, Sopelmar).
 - Barakaldon itsasadarraren ondoan egindako esku-hartzeei dagokienez, parte-hartzaileak ez dira ados jarri, baina jada antropiko bihurtu diren gune horiek etorkizunean zer aukera izango dituzten eztabaidatu dute.
 - Udalerrien arteko konektibitatea sustatzea.
 - Udal-ordenantzei buruzko babes-gomendioak eta -neurriak –bete beharrekoak– azpimarratzea.
- 5. *“Bizikleta bidezko mugikortasun-ahala areagotzea, dauden trazadurak egituratuz eta osatuz, eta haien eta garraio kolektiboaren arteko truke modalak erraztuz”*
 - Itsas ertza eta itsasadar-ertza indartzea, txirrindulariek eta oinezkoek erabil dezaten, udalerrien arteko konexioa sustatuz.
 - Garraio publikoko zerbitzuen bikoiztasuna saihestea.
 - Kalitate eta erakargarritasun handiko eskaintzaz hornitzea, herritarrak konturatu daitezten bizikleta erabiltzea oso aukera egingarria dela, eskuinaldeko leku askotan, behinik behin.
 - Garraio publikoaren maiztasuna hobetzea, zerbitzu hori indartzeko.
 - Inbertsio txikiko neurri gisa, itsasadarraren ardatzean abiadura mugatzea eta txirrindulariei lehentasuna ematea.
- 6. *“Urbanizagarriak diren baina oraindik urbanizatu ez diren nekazaritza-balio handiko lurzoruei kategoria hori kentzea”*

- Tokiko paisaiari balioa emateko neurriarekin lotu dute orientazio hori.

● 7. *“Txartel bakar bat sortzea garraio publikorako”*

- Tarifa bakarra edo txartel integratua abiaraztea; abiapuntuko tokiaren/geltokiaren araberako ordainketa.

Hona hemen **GARRANTZI HANDIENEO ETA PREMIA TXIKIENEO** orientazioak, lehentasun handienekotik txikienera:

● 8. *“Landaguneak zedarritzeko eta antolatzeko eta baserriak banatzeko irizpideak ezartzea, bertan behera gera ez daitezen”*

- Baserri historikoak babesteko eta orain arteko iruzurra arautzeko figura bat sortzea.

● 9. *“Automobil pribatuaren erabilera murriztea, garraio kolektibo garbien erabilera bultzatuz”*

● 10. *“Metropoli-eremutik kanpoko tokiekiko mugikortasuna eta loturak hobetzea, abiadura handiko trenbidearen bitartez”*